# gaurko filmak

Ane Muñoz

| | | |
|---|---|---|
| **Dinosaurios** ★★ | Zuz.: Irvin S. Yeaworth Jr. 85m. 1960. | **18:25 ETB2** |
| **Potins mondains et amnésies ...** ★ | Zuz.: Peter Chelson. 105m. AEB. 2001. | **21:00 C+(f)** |
| **60 segundos** ★ | Zuz.: Dominic Sena. 113m. AEB. 2000. | **22:00 T5** |
| **La Comunidad del Anillo** ★★★ | Zuz.: Peter Jackson. 165m. 2001. | **22:00 C+(e)** |
| **El tiempo de la felicidad** ★★ | Zuz.: Manuel Iborra. 100m. Esp. 1997. | **23:15 La2** |
| **Code inconnu** ★★★ | Zuz.: Michael Haneke. 115m. Fran. 1999. | **00:20 Arte** |
| **Giro al infierno** ★ | Zuz.: Oliver Stone. 119m. AEB. 1997. | **00:30 T5** |
| **Otsoa** ★ | Zuz.: Mike Nichols. 125m. 1994. | **00:50 ETB2** |
| **Aquí hay petróleo** ★★ | Zuz.: Rafael J. Salvia. 82m. Esp. 1955. | **02:00 La2** |
| **Frenos rotos, coches locos** ★★ | Zuz.: Robert Zemeckis. AEB. 1980. | **02:30 TVE1** |
| **El cebo** ★★★ | Zuz.: Ladislao Vajda. 87m. Esp. 1958. | **03:25 La2** |

| ● | ★ | ★★ | ★★★ | ★★★★ |
|---|---|---|---|---|
| Txarra | Eskasa | Balekoa | Ona | Bikaina |

### DINOSAURIOS
**★★ ETB2 - 18:25**

Zuz.: Irvin S. Yeaworth Jr. Akt.: Ward Ramsey, Paul Lukather. 85m. 1960.

Istorio txiki baina samur eta atsegina kontatzen du film fantastiko zahartxo honek, antzinako gizon baten eta horrek hantxe topatuko dituen bi dinosauroena. Karibeko uharte exotiko batean gertatzen da eta Ward Ramsey izar ahaztuak antzezten du rol nagusia. Zaharkitua geratu bada ere, nahiko entretenigarria da eta ez zarete aspertuko.

### EL SEÑOR DE LOS ANILLOS: LA COMUNIDAD DEL ANILLO
**★★★ C+ (e) - 22:00**

Zuz.: Peter Jackson. Akt.: Elijah Wood, Ian McKellen, Viggo Mortensen, Sean Astin. 165 m. AEB-ZB. 2001.

Tolkienen eleberri fantastikoaren bertsio zinematografiko erraldoi eta garesti hau ikusteko pazientzia behar da, oso luzea baita, baina benetan gozagarria da eta aukera ematea gomendatzen dizuet, batik bat zineman ikusterik izan ez zutenei (nahiz eta telebistan ez den hain ikusgarria). *The lord of the rings* sagaren lehen atala da, efektu berri eta garestienez apaindutako abenturazko film ederra. Pertsonaiak aurkezten ditu aurreneko atalak, eta Frodo eta bere lagunak lehenengo abenturetan murgilduko dira.



**KOMEDIA ★★**
**Aquí hay petróleo** Zuz.: Rafael J. Salvia **La 2 02:05**

## Beldurrezko istorio baten xarma

### EL CEBO ★★★
**La 2 - 03:25**

Zuz.: Ladislao Vajda. Akt.: Heinz Ruhmann, Maria Rosa Salgado. 87m. Esp. 1958.

Suspensezko klasiko espainiar txiki honek, Ladislao Vajdaren filmografian garrantzitsuetakoak, oso pertsonaia bitxiak aurkezten ditu. Friedrich Durrenmatten ipuin batean oinarritua dago; idazleak Vajda zuzendariarekin batera egokitu zuen, horrek ondoren zuri-beltzeko irudi eder eta izugarrietan emateko. Neska txiki baten hilketa misteriotsuaren ingurukoa da. Eszena nagusiak txukun girotuta dauzka, eta amaieraraino arretaz ikusteko modukoa da, irudi ilun eta itogarriek ezeroso sentiaraziko bagaituzte ere. Suitzak Espainiarekin eginiko film gomendagarri honetan Gert Frobek jokatzen du rol nagusia.

### CODE INCONNU
**★★★ Arte - 00:20**

Zuz.: Michael Haneke. Akt.: Juliette Binoche. 115m. Frantzia 1999.

Michael Haneke egungo europar zinemagile interesgarrietakoak *La pianiste* gogorra estreinatu aurretik filmatutako drama harrigarri bat da. Eszenaratze berezi eta ikusgarria aukeratzeaz gain, bikain islatzen du egungo Mendebaldeko gizarteak duen inkomunikazio eta bortizkeria. Juliette Binoche erakargarriak antzezpen miresgarria egiten du, rol nagusian. Arretaz ikustea merezi du.

### OTSOA
**★ ETB1 - 00:50**

Zuz.: Mike Nichols. Akt.: Jack Nicholson, Michelle Pfeiffer. 125m. 1994.

Gaur euskaraz ikusiko dugun Mike Nicholsen zinta fantastiko honek baliorik badu, Michelle Pfeiffer eta Jack Nicholson garestiak bildu zituelako du. Gizotsoen inguruko film multzo zabalean eskasetakoa da. Izan ere, efektu garestiez apainduta dagoen arren, gidoi pobreak eta eszenaratze arruntak ia jasangaitza bihurtzen dute. Gizotsoaren gainean egin diren ekoizpenen artean kaskarrenetakoa da.

### AQUÍ HAY PETRÓLEO
**★★ La 2 - 02:00**

Zuz.: Rafael J. Salvia. Akt.: Manolo Moran, Jose Luis Ozores. 82m. Espainia. 1955.

Zuri-beltzeko zinta zahar hau, bereziki, *sainete* zaharkituak atsegin dituenari gomendatuko diot. Jose Luis Ozores, Manolo Moran eta Monica Pastrana ahaztuek protagonizatutako komedia ero samar bat da. Enpresaburu estatubatuar batzuk Espainiako herrixka batean negozioa ipini nahi dute, nonbait petrolio putzu bat aurkitu dute eta. Salvia zuzendariak kultura ezberdinen arteko txokeak eragindako egoera eta gaizki-ulertzeak umorez aztertzen ditu. Entretenimendu gisa ikusteko ez dago gaizki, baina ez zaitzte aseko.

# irratia

| FM | | |
|---|---|---|
| 89.2 | Segura Irratia | |
| 90.5 | Antxeta Irratia | |
| 91.4 | Euskalerria Irratia | |
| 91.8 | Irulegiko Irratia | |
| 93.6 | Arrate Irratia | |
| 94.4/95.2 | Euskadi Irratia | |
| 95.5 | Xiberoko Boza | |
| 96.0 | Bilbo Hiria | |
| 97.00 | Tas-tas Irratia | |
| 99.8 | Herri Irratia | |
| 101.3 | France Bleu Pays Basque | |
| 102.5 | Bizkaia Irratia | |
| 103.5 | Euskadi Gaztea | |
| 106.6 | Gure Irratia | |
| 107.5 | Txolarre Irratia | |
| 107.5 | Xorroxin Irratia | |
| 107.7 | Hala Bedi | |

OM 1224 Herri Irratia

**EUSKADI IRRATIA.** Txema Hernandezek fuel-olioaren ezaugarriez eta horren eraginez hitz egingo du 09:30ean *Goizean behin* saioan. Ondoren, Irakeko egoerari kaleko jendeak zer iritzi dion jasoko dute. Elena Bian Amnesty Internationaleko kidearekin ere mintzatuko dira gaiaz. 10:00etan, Joxerra Gartziaren gogoetak entzun ondotik, zinemaren tartea iritsiko da. 11:00etan, Asier eta Aimar Olaizola pilotariak elkarrizketatuko dituzte. Eguerdian, Eguzki Irratiaren 20. urteurrenaz ariko dira. *Lauretan babel* saioan, Gaztemaniak-eko seigarren diskoa aurkeztuko dute.

**RADIO EUSKADI.** EHUko errektore Manu Montero elkarrizketatuko dute gaur 09:15ean *Boulevard* irratsaioan. Ondoren, Nafarroako anbulantzietako langileen grebaz hitz egingo dute CCOOko ordezkari Javier Ibañezek eta ELAko Alejandro Bakaikoak. Muxiako kofradiako kudeatzaile Nacho Castrok Galiziako egoeraren berri emango du. Asteburuan egingo duen eguraldiaz Edorta Roman meteorologoak hitz egingo du. *La jungla sonora* saioan, 17:00etan, Arianna Puello hip-hop kantari dominikarra elkarrizketatuko dute eta bere diskoetako kantak entzuteko aukera izango da.

## ETB-1

**07:00:** Tik tak circus.
**07:30:** Betizu.
**08:55:** E-klipse@.
**09:20:** Bidaide.
**10:20:** Euskadi Irratia, 20 urte.
**10:50:** Firin faran.
**11:55:** Planeta biluzia.
**12:45:** Ushuaia.
**13:35:** Betizu. Shin Chan.
**14:00:** Gaur egun. Albistegia.
**14:45:** Postdata.
**14:50:** Gaur egun elkarrizketa. Gonbidatua: Josune Ariztondo.
**15:25:** Basetxea.
**17:00:** Ikusgela.
**17:35:** E-klipse@.
**18:00:** Iparraldearen orena.
**18:05:** Tick tack circus.
**18:15:** Betizu. Animalikeriak. Pantera arrosa. Doraemon, katu kosmikoa. Betizuzenean. Shin Chan.
**20:28:** Gaur Egun. Albistegia.
**21:10:** Bertatik bertara.
**21:45:** Goenkale.
**22:25:** Pilota: Eskuz Binaka. Agirre - Barriola / Titin III - Zezeaga.
**23:45:** Postdata.
**23:50:** Boxeo izarrak.
**00:50:** Zinema.
**Otsoa**
Zuz.: Mike Nichols.
Akt.: Jack Nicholson, Michelle Pfeiffer. 1994.
**02:50:** Bertatik bertara.
**03:20:** Gaur egun elkarrizketa.
**03:55:** E-klipse@.
**04:30:** Esanak esan.
**05:05:** Elkartasunaren bideak.
**05:35:** Euskal Herritik.
**06:00:** 1 bitan.
**06:45:** Ikusgela.

## TVE1

**06:00:** Canal 24 horas. Albistegia.
**07:30:** Telediario matinal. Albistegia. (09:30) Los desayunos de TVE. Gonbidatua: Alfredo Perez Rubalcaba.
**10:25:** Saber vivir.
**11:00:** Por la mañana. *Asi son las cosas. (13:25) La cocina de Karlos Argiñano.*
**14:00:** Informativo territorial. Albistegia.
**14:30:** Corazon de invierno. Magazina.
**15:00:** Telediario 1. Albistegia.
**15:55:** Eguraldia.
**16:00:** Geminis. Telesaila.
**17:00:** Secreto de amor. Telesaila.
**17:55:** Cerca de ti.
**18:55:** El rival mas debil. Lehiaketa.
**20:00:** Gente. Pepa Buenok eta Sonia Ferrerek aurkeztutako magazin saioa.
**21:00:** Telediario 2. Albistegia.
**21:55:** Eguraldia.
**22:00:** Cruz y raya.com.
**23:00:** Esta es mi historia. Magazina.
**02:00:** Telediario-3. Albistegia.
**02:30:** Zinema.
**Frenos rotos, coches locos**
Zuz.: Robert Zemeckis.
Akt.: Kurt Russell, Jack Warden. 1980.
**04:30:** Canal 24 horas.

## ETB-2

**06:10:** Sustraia.
**06:35:** Del pais de los vascos.
**07:00:** Clasicos en serie. Los angeles de Charlie. Los hombres de Harrelson. Starsky y Hutch.
**09:30:** El punto. Gonbidatua: Felipe Gonzalez.
**10:00:** Forum. Gonbidatuak: Isabel Tejada eta Isabel Elorza.
**10:30:** Cosas de casa. Telesaila.
**11:00:** La ley de la bahia.
**11:55:** Pacific blue.
**13:30:** Euskadi directo. Navarra directo.
**13:55:** Date el bote.
**14:58:** Teleberri. Albistegia.
**15:45:** Lo que faltaba.
**18:25:** Zinema.
**Dinosaurios**
Zuz: Irvin S. Yeamorth Jr.
Akt: Ward Ramsey, Paul Lukather. 1960.
**20:00:** Esta es mi gente.
**20:58:** Teleberri. Albistegia.
**21:55:** X cuanto? Lehiaketa.
**23:00:** Mas humor.
**00:55:** Investigation TV.
**01:50:** Medias de seda.
**03:30:** Esta es mi gente
**04:20:** Lo que faltaba.
**06:25:** Forum.
**06:55:** Batalla de los sexos en el mundo animal.
**06:25:** Dokumentala.

## A3

**06:15:** A3 N24. Canal Noticias. Albistegia.
**07:00:** Buenos dias España.
**09:15:** El primer cafe. Carmen Gurruchagak aurkeztutako saioa.
**10:00:** Como la vida. Magazina.
**12:30:** El equipo A. Telesaila.
**13:25:** Informativos territoriales. Albistegia.
**14:00:** Los Simpson. Marrazki bizidunak.
**15:00:** Antena 3 Noticias 1. Albistegia.
**16:00:** La isla de los famosos.
**16:30:** Sabor a ti. Magazina.
**19:00:** El diario de Patricia. Patricia Gaztañagak aurkeztutako magazin saioa.
**20:00:** Pasapalabra. Lehiaketa.
**21:00:** Antena 3 Noticias 2. Albistegia.
**22:00:** La isla de los famosos.
**22:35:** Los videos mas divertidos de la TV.
**00:25:** Alerta 112.
**01:30:** Antena 3 noticias. Albistegia.
**02:30:** Los Intocanbles. Telesaila.
**02:45:** Televenta.
**04:30:** Repeticion de programas.